

## GARIZUMAN ZEHAR

1

Gurutz gainetik deika  
errukiz betea,  
beso zabalik zagoz,  
Jesus maitea.  
Hauxe da zure gogo  
ta borondatea:  
Gu zoriontsu ta  
santu izatea.  
Gaur nahi dot hastea,  
Zeugana joatea;  
luze da bidea,  
erruki zaitea!  
Gaur da Garizumako  
lehen domekea;  
aukera barri bat da,  
hau da suertea!

2

Garizuam erdian  
agertzen da Tabor,  
hortxe Jesus dizdizka  
ta pozez borbor.  
Zuzentasun-bidea  
sarri jaku gogor,  
gainditu behar mila  
traba eta soster.  
Ez egin entzungor,  
jagi, ekin bixkor;  
ez gelditu inor,  
hileta joten hor.  
Txapel haundiak beti  
izerdia zor;  
Aste Santu ondoren  
Pazkua dator.

3

Horra gaur Jesus onak  
zigorra astindu,  
merkatu dan eleizan  
bihotza mindu...  
Kristok garbitu gaitu  
eta graziz findu,  
hainbat kostata gero  
ezin da zikindu.  
Makal ta ezindu,  
gora ta zutindu,  
gogoz ahalegindu;  
Kristok dei egin du!  
Horra geure aurrean  
Hamar Agindu;  
maite dogula hortxe  
hazur-mamindu.

4

Maite gaitu Jesusek,  
nok dauka kejarik?  
Ez jako geldituten  
odol-tantarik.  
Ez deusku ukatuko  
parkamen-berbarik,  
ezta maiteen dauan  
Beraren Amarik...  
Hau dakigularik,  
ezer egin barik,  
ez daukat kezkarik?  
Ez daukat lotsarik?  
Maite nozula, Jesus,  
ez da dudarik;  
Zu ez maitatzea da  
nahiko faltarik!

5

“Jesus ikusi nahi dot”  
bilaka hasia,  
Garizumak eskeintzen  
deuskun grazia.  
Hasarre ta burrukak,  
negar-garraxia,  
erronka asko, baina  
galtzeko trazia.  
Gu gara klasia  
kristau errazia;  
ez galdu plazia,  
hartu arnasia!  
Kristok eskuratuta  
dauka bazia;  
Gurutzean guretzat  
irabazia.

6

Jesus asto gainean,  
hori da sasoi!  
Heriotzaren aurka  
hau erraldoia!  
Munduko okerrari  
hartu deutso goia,  
eta deabruari  
ezarri arpoia.  
Mundu berekoia  
galduta dago ia;  
Jauna da morroia,  
nok dau errazoi?  
Gurutzan emon deutso  
a zer jipoia!  
Eta betiko jarri  
Aitak koroia!!!

A. Martzel

